

Transnazionalak eta garapena

Xabier Barrutia Etxebarria
EHUko irakaslea eta UEUKidea

Atzerriko Inbertsio Zuzenak garrantzitsuak dira garabideko estatuetan. Hala ere, inbertsio hauek oso kontzentratuta daude multzo honetako estatu batzuetan. Izan ere, atzerriko inbertsioek askotan lekuan lekuko merkatuak eskuratzea bilatzen dute. Era berean, faktore aurreratuak dituzten eskualdeek transnazionalen gehiengoa erakartzen dute: lan-esku kualifikatua, erlazioetatutako enpresa eraginkorrak, azpiegiturak, etab.

Enpresa transnazionalak arlo askotan eragiten du garabideko estatuetan. Eragin positiboak edukitzeaz gain, kasu askotan eraginak negatiboak dira. Horregatik, transnazionalen jarduerak arautua izan behar luke.

Foreign Direct Investments are important to Developing Countries. Anyway these investments are very concentrated in a group of countries, because most of the times foreign investments look to achieve local markets. Regions with developed factors are attractive to most of the multinational enterprises: qualified personal, valuable enterprises related, infrastructure...

Multinational enterprises affect in different matters to Developing Countries; some effects are positive but some others are negative. That's why multinational activity would be regulated.

Lan honetan Enpresa Transnazionalaren kontzeptuari eta neurketari helduko diogu lehenik eta behin. Ondoren, enpresa transnazionalak Hirugarren Munduko garapenean daukan eragina aztertuko dugu. Inoiz eragin hau positiboa izan bada ere, beste batzuetan kaltegarria izan da. Horregatik, azken atalean enpresa transnazionalaren kontrolari helduko diogu.


1. Enpresa Transnazionalaren kontzeptua

Ez dago enpresa transnazionalaren (ETN) definizio ofizialik. Hala ere, gure ustez bi dira definizio zabalduenak. Lehenengo edo ohikoaren arabera enpresa transnazionalaz berba egiten dugu enpresa batek produkzio-gaitasuna (fabrikak, makinak) estatu baten baino gehiagotan daukanean.

Bigarren definizioa aurrekoa baino zabalagoa da. Honen arabera: «ETN aktibitateak estatu batean baino gehiagotan koordinatzeko eta kontrolatzeko gai den enpresa da, nahiz eta euren jabetza eduki ez» (Dicken, 1998, 177).

Izan ere, jabetzarik gabe ere gauzak kontrola daitezke. 1. irudian ikusi daitekeenez, ETNak operatzeko lau modu desberdin ditu. Atzerriko Inbertsio Zuzenez (AIZ) gain Inbertsio Modu Berriak daude: aliantza estrategikoak, nazioarteko subkontratazioa eta sare dinamikoak.

1. Irudia: Enpresa Transnazionalaren parte-hartzea



Iturria: Dicken, 1998: 237.

1.1. Atzerriko Inbertsio Zuzenak

Parte hartzeko modu hau ETNren lehenengo definizioarekin bat dator. Honen arabera, enpresa transnazionalaren sorrera nazioarteko inbertsioaren bitartez gertatzen da. Zehatzagoak izanda, atzerriko inbertsio zuzenak dira puntu honetan garrantzitsuak direnak. Hau da UNCTADek erabiltzen duen irizpidea eta ETNen definizio sasi-ofizialtzat har dezakegu. UNCTADek urtero WIR (*World Investment Report*) delakoa plazaratzen du.

Atzerriko inbertsio zuzenez berba egiten dugu enpresa batek atzerrian fabrika berria muntatzen duenean, edo aurretik existitzen zen enpresa bat erosten duenean, edo behintzat kanpoko enpresa horren akzioen minimo bat erosten duenean (%10-25 bitartean iturriaren arabera). Izan ere, minimo horretara ailegatzeko bada, suposatzen da enpresa horren kontrola eskuratzen duela eta bertan epe luzeko interesa daukala. Ostera, enpresa batek beste baten akzioen %10 baino gutxiago erosten badu, suposatzen da ez duela kontrolik bilatzen, baizik eta dibidenduak ateratzea. Azken kasu honi Zorroko Inbertsioa deritzo.

Beraz, ETNak produkzio-gaitasunaren jabetza gutxienez bi estatutan dauka. Nahikoa da filial bat edukitzea edo kapitalaren %10. Transnazionalen multzo honen barruan enpresa batzuk benetako multinazionalak dira, eta fabrikak estatu bitan baino askoz gehiagotan dauzkate.

1.2. Nazioarteko subkontratazioa

Enpresa automobilgile batek altzairua behar du automobilaren karrozeria egiteko. Hiru aukera ditu: lehenengoa, Ford-ek lehen egiten zuen bezala, enpresak berak behar duen altzairua produzitzea da. Aukera hau integrazio bertikala deitzen da, hau da, enpresa bere produkzio-kateko beste katebegi batzuetan ere sartzen da.

Bigarren aukera da altzairu hori berak ez produzitzea, eta behar duen bakoitzean merkatuan erostea enpresatik independienteak diren altzairu-saltzaileei.

Hirugarren aukera azken bi aukeren erdian dago. Automobilgileak beste enpresa batzuei erosten die altzairua, baina hauek ez dira enpresatik guztiz independienteak; hau da, automobilgilearekin urte batzuetarako hornikuntza kontratua sinatuta daukate. Azken kasu hau subkontratazioa da.

Subkontratazioak azken hamarkadetan gorantz egin du. Izan ere, enpresa handiek desintegrazio bertikalerako joera eduki izan dute.

Adibidez, Nike enpresak benetan ez dauka zapata-fabrikaren jabegorik. Nike diseinu- eta banaketa-jardueretan espezializatu da. Zapata-fabrikak Hirugarren Munduan azpikontratatzeko ditu eta bere marka Asiako 450.000 langile baino gehiagok produzitzen dute alokairu barregarri baten truke.

1.3. Sare dinamikoak

Aipatutako Nike-en adibidean bezala, subkontratazioak neurri handia hartzen duenean eta enpresa jarduera oso zentraletara mugatzen denean, gainerakoa koordinatuz, orduan sare dinamikoek hitz egiten dugu.

1.4. Aliantza estrategikoak

ETNek beste ETN edo enpresa nazional batzuekin elkarlan akordioak sinatzen dituzte: ikerketak batera egiteko, produktuen merkaturatzea batera egiteko, etab. Arlo horietan elkarlana eduki dezakete eta gainerako arlo guztietan lehiakideak izan (Zurbano, 1998, 22).

Enpresek, askotan, bakoitzak fabrika bat jarri beharrean, fabrika enpresa bat baino gehiagoren artean jartzen dute. Elkarlan hau *joint ventures* izenez ezagutzen da. Horrela, besteak beste, enpresentzat kapital-gastuak beheratzen dira.

1.5. Transnazionalen gainerako parte-hartzeak

Oraintxe ikusi ditugun jardueraz gain, ETNak, jakina, funtsezko beste jarduera batzuetan ere aritzen dira: nazioarteko salgaien merkataritza, patenteak eta euren lizentzien salmenta, frankiziak, etab. Hala ere, gorago definitu legez, enpresa bat ez da transnazionala nazioarteko merkataritzan asko aritzen delako, baizik eta produkzioan eragiten duelako.

2. Enpresa transnazionalaren datuak

Orain arte esandakoa ahaztu barik, atal honetan atzerriko inbertsio zuzenen (AIZ) datuak aztertzeraz mugatuko gara. Izan ere, datu hauek dira eskuragarrienak.

Enpresa transnazionalak XIX. mendeko bigarren erdialdera arte ez ziren agertu. Garai hartan AEBetako eta Britainia Handiko transnazionalak nagusi ziren. Atzerriko inbertsioen norabide garrantzitsuena Iparra-Hegoa zen eta helburua naturaren baliabideak ustiatzea zen.

XX. mendeko lehen erdialdean atzerriko inbertsio zuzenek gorantz sendo egin bazuten ere, igoera hori txiki geratu zen XX. mendeko bigarren erdialdean gertatutakoarekin. Bereziki, 1985-1990 tartean eta 1994tik aurrera, AIZen gorakada bortitza izan da (Dicken, 1998, 42). Bat-egiteek eta erosketek hauen erdia osatzen dute.

ETNen kopuruari begiratuz gero, 1960. urtean 7.000 baziren, 1996rako 44.508 ziren eta 2000. urtean 60.000 izatera ailegatu dira. Azken hauek atzerrian 800.000 filial dauzkate (UNCTAD, 2001).

Beraz, datuetan dakusaguna ez da betiko 200 ETN erraldoi ezagunek (General Motors-ek, Nestle-k eta abarrek) nazioarteko ekonomia gero eta gehiago kontrolatzen dutela. Ostera, garrantzitsuena da gero eta enpresa gehiago ari direla internazionalizatzen, baita enpresa txiki eta ertainak ere. Euskal Herrian azken honen adibide ugari aurkitzen ditugu azken hamarkadan: MCC, Irizar Mexikon, Sidenor Brasilen, Egaña eta beste asko.

Aurreko igoera guztiekin noraino ailegatu gara? Iritzi desberdinak daude (Bidaurrezaga, 1999: 11). Sutcliffe eta Glyn gure Parmenide modernoentzat, ETNen fenomeno ez da hain berria eta ez dira munduaren kontrola edukitzera ailegatu. 1996. urtean zeuden 44.508 ETNek, euren kalkuluen arabera, munduko produk-

zioaren %22 adierazi zuten eta munduko kapitalaren %19. Kapitalaren %5 baka-
rrik dago atzeritarren eskuetan eta ETNek munduko enpleguaren %3 osatzen
dute (Sutcliffe & Glyn, 1999).

2.1. AIZen geografia

ETN gehienak industrializatutako estatuetoakoak dira. AIZen irteera gehienak,
%90 inguru, estatu industrializatuetatik ateratzen dira. Era berean, AIZen sarrera
gehienak, %60 inguru, 1990eko hamarkadaren erdialdean eta %80 azken urteetan,
industrializatutako estatuetan gertatzen dira. Beraz, AIZ fluxuen norabiderik
garrantzitsuena iparra-iparra da.

Inbertsio hauen helburu garrantzitsuenak Europako Batasuna eta AEBak dira.
Ostera, Japoniak ez du bere lurrean atzeritarren AIZ askorik hartzen, herrialdeak
politika itxia dauka eta.

Garabideko estatuak, aldiz, garrantzi txikiagoa daukate AIZen sortzaile zein
hartzaile modura. AIZ herri hauek sarreren %40 osatzen zuten 1990eko
hamarkadaren erdialdean eta %20 gaur egunean (UNCTAD, 2001: 50). Hala ere,
garabideko estatuak jasotako AIZ hauek herri berberak jasotako nazioarteko fluxu
publikoak gainditzen dituzte (Dubois, 2001).

Gainera, garabideko estatuetan AIZen kontzentrazioa handia da herrialde
gutxi batzuetan: Industrializazio Berriko Herrialdeak (IBH). Hori 1. taulan ikus
dezakegu:

1. Taula: Atzerriko Inbertsio Zuzenen hartzaileak garabideko estatuen artean 1985 eta 2000. urteak (ehunekotan)

Ekonomia	1985*	Ekonomia	2000**
Saudi Arabia	20,4	Txina	19,2
Mexiko	11,3	Hong Kong (Txina)	16,0
Brasil	9,2	Brasil	14,4
Txina	7,0	Argentina	6,5
Singapur	6,9	Mexiko	5,6
Malaysia	5,5	Koreako Errep.	4,0
Egipto	4,7	Singapur	3,1
Bermudak	4,6	Bermudak	2,8
Hong Kong (Txina)	4,3	Txile	2,7
Argentina	2,7	Kaiman Uharteak	2,4
10 handienak	76,6		76,7

*: Batez bestekoa 1983-85; **: Batez bestekoa 1998-2000
Iturria: UNCTAD, 2001: 52.

1990eko hamarkadan Txinak (Hong Kong barne) garrantzi berezia eduki du. Ostera, 49 herri pobreenek ez dute AIZik erakartzen, munduko AIZ sarreren %0,3 bakarrik 2000. urtean.

2.2. AIZ sektoreka

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, AIZak batez ere naturaren baliabideak ateratzera eta ustiatzera zuzentzen ziren. Geroago, manufakturrek hartu zuten nagusitasuna arlo honetan. Azkenik, gaur egunean garrantzitsuenak zerbitzuen arloan gertatutako AIZak dira. Zerbitzuek 1999. urtean dagoeneko industrializatutako estatuetan metatutako kanpo inbertsioen erdia baino gehiago ordezkaten zuten, eta garabideko estatuetan herenaren ingurua.

Beraz, garabideko eta industrializatutako estatuen artean desberdintasunak daude sektoreei dagokienez. Hauetan barneratuz gero ere desberdintasunak daude. Adibidez, manufakturen barruan teknologia altuko adarretan gertatutako AIZak (bioteknologia edo kimika adibidez), industrializatutako estatu batzuetan kontzentratuta daude. Ostera, garabideko estatuak jasotzen dituzten AIZak teknologia apaleko adarretara zuzentzen dira (UNCTAD, 2001: 15).

3. Transnazionalak sortzeko arrazoiak

Zergatik bilakatzen dira transnazional enpresa asko? Faktore desberdinak daude:

- Krisiaren aurreko erantzuna
- Teknologia
- Gobernuen politikak
- Baldintzak

Krisiaren aurreko erantzuna: Piore eta Sabel-en arabera, enpresek 1970eko hamarkadan hasitako krisiari erantzuteko modua izan da transnazional bilakatzea.

Teknologia: zalantza barik, teknologiaren aurrerapenak asko erraztu du transnazionalen sorrera. Garraioak asko garatu dira, halaber, telekomunikazioak, etab. Ondorioz, produktuak, informazioa, etab. erraztasun handiagoaz mugitu daitezke.

Era berean, teknologiak beste zentzu askotan izan du eragina (Bidaurrazaga, 1999: 8). Ekonomia astindu du eta enpresen arteko lehia bizitu egin du.

Gobernuen politikak: azken hamarkadetan, mundu osoko gobernuek atzerriko inbertsio zuzenei erraztasunak eman dizkiete. Aurretik zeuden kontrol eta arauketa asko baztertu egin dira. Gaur egunean gobernuak inbertsio horiek erakartzen saiatzen dira.

Baldintzak. Transnazionalak sortzeko baldintza batzuk bete behar dira. Puntu honetan Dunning-en teoria eklektikoari jarraituko diogu. Horren arabera 3 baldintza behar dira enpresa bat transnazional bilakatzeko:

- Enpresak abantaila batzuen jabegoa eduki behar du.

- Abantaila horiek aprobetxatzeko modurik onena enpresa bera produkzioan aritzea izatea.
- Kanpoko kokapenak abantaila batzuk eskaini behar ditu.

Lehenengo baldintzaren arabera enpresak puntu sendoren bat eduki behar du: tamainua, teknologia, jakintza, etab. Horri esker atzerrian kokatu ahal izango da eta bertako enpresekin lehiatu ahal izango da.

Bigarren baldintzari jarraituz, abantaila horiei etekina ateratzeko modurik onena enpresa bera produkzioan aritzea izan behar da. Izan ere, badaude abantailaz baliatzeko beste modu batzuk: jatorrizko herrian produzitzea eta gero esportazioen bitartez kanpo merkatua hornitzea; teknologia beste batzuei alokatzea eta dagozkion lizentziak kobratzea; etab. Azken bide horiek ere askotan erabiltzen dira.

Hala ere, askotan teknologia ez da alokatu nahi izaten. Enpresentzat faktore kritikoa izanik, askotan etxe barruan gorde nahi izaten da. Hau ETNak sortzeko arrazoi garrantzitsua da (Dicken, 1998: 187).

Hirugarren baldintzak, azkenik, atzerriko kokapenak abantaila batzuk eskaini behar dituela diosku. Hauek izan daitezke:

- Merkatuak
- Baliabide naturalak
- Produkzio-kostuak
- Baldintza politikoak
- Kultura eta hizkuntza ezagunak

Merkatuari begira egindako AIZak: AIZ asko merkatu baten barruan burutzen dira merkatu hori eskuratzeko asmoz. Merkatuaren tamainua garrantzitsua da, honetan biztanleriaren zenbatekoak eta per capita errentak eragiten dute. Lehenengo Munduak Hirugarren Munduak baino merkatu handiagoa du.

Garraio-kostuak sahiestea ez da abantaila bakarra. Merkatutik edo bezeroarengandik hurbil egoteak azken honekin harremanak edukitzea eta hobeto ezagutzea errazten du. Era berean, etorkizunean estatu horrek arantzelak igotzen baditu enpresari ez dio eragingo, dagoeneko merkatu barruan egongo da eta. Esate baterako, japoniar automobilgileek Europako Batasunaren barruan produzitzen dutenez, azken honek bere arantzelak igotzen baditu, ez die produkzio horiei eragingo.

Eskaintzari edo kostuei begira egindako AIZak: baliabide naturalak (mineralak, kakaoa, etab.), jakina, leku jakinetan daude. Atzerriko enpresek horiek zuzenean ustiatu nahi badituzte AIZak burutu behar dituzte. Lehengai horien eraldaketa, gero beste leku batzuetan egin daiteke. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran egindako AIZ nagusiak mota honetakoak izan ziren.

Hala ere, baliabide naturalen jabegoa, teknologiaren garapenari esker, ez da gaur eguneko ekonomian lehiatzeko faktore garrantzitsua.

AIZak burutzeko beste arrazoi bat produkzio-kostuak beheratzea izango litzateke. ETNak leku desberdinek dituzten desberdintasunez baliatzen dira. Faktorerik mugigaitzena lana da, ez da kapitala bezain mugikorra, besteak beste migrazioa oztopatu egiten delako.

Lan-eskua ez-koalifikatu edo koalifikatu izan daiteke. Jarduera edo sektore batzuetan lan-esku ez-koalifikatu lehiatzeko aldagai garrantzitsua izan daiteke, adibidez ehungintzan. Kasu horretan ETNak lan-esku merkea duten estatuetan eraiki dezake fabrika.

Beste kasu batzuetan, automobilgintzan adibidez, lehiatzeko eskakizunak desberdinak dira. Mercedes-ek 1999. urtean bere inbertsio berria zergatik kokatzen zuen Gasteizen azaltzeko orduan, leku horretan dagoen lan-esku gaitua eta automobilgintzako hornitzaile onak aipatu zituen.

Batzuetan sektoreak zatigarriak dira, automobilgintza edo elektronika, besteak beste. Sektoreko jarduera edo pauso batzuk, ikerketa eta diseinua adibidez, herrialde garatuetan koka daitezke bertan lan-esku koalifikatu eta unibertsitate onak daudelako. Beste jarduera edo pauso batzuk, ostera, lan-esku ez-koalifikatu eskatzen dute eta garabideko estatuetan koka daitezke. Gero produkzio guztiak bat egiten dira. Dena dela, Sutcliffe eta Glyn-en (1999) arabera mota horretako enpresak ez dira asko.

UNCTADen arabera, AIZak egiteko faktoreen artean ondokoek indarra galdu dute: merkatu handiek, baliabide naturalek eta lan-esku merke eta ez-koalifikatuk (UNCTAD, 2001, 21). Faktorerik garrantzitsuenak beste hauek dira: lan-esku koalifikatu, bertan beste enpresa eraginkor batzuk egotea, aglomerazio ekonomiak, etab. (UNCTAD, 2001: 27-28).

4. Transnazionalen eragina garapenean

Dicken-en arabera, eragina zenbait aldagairen araberakoa izango da. Aldagai bat ETNak garabideko estatuetan planta horrekin dituen helburuek osatuko dute: lan-esku merkea erabiltzeak, bertako merkatua asetzeak, eta abarrek. Beste aldagai bat garabideko estatu horretako ekonomiaren ezaugarriak izango dira.

Eragina batzuetan positiboa da eta beste batzuetan kaltegarria. Atal honetan azterketa koantitatiboa egitea komenigarria balitz ere, ez da erraza izaten.

Transnazionalen eragina arlo askotan nabaritzen da:

- kapitala eta finantzak
- produktuak
- teknologia
- merkataritza eta harremanak
- industri egitura eta enpresak
- enplegua eta langileak

4.1. Kapitala eta finantzak

ETNek, AIZak egitean, normalean kapital-sarrera bat izaten dira garabideko estatuan. Hori ez da guztiz beharrezkoa, ETNak garabideko estatu horretako finantza-merkatuan finantza daitezke eta.

AIZek, bankuen maileguak jasotzeak eta bonoen salmentak ez bezala, ez dakarte zorpetzerik. Hala ere, dena ez da positiboa, ETNek askotan mozkinak kanpora bidaltzen baitituzte. Dena dela, jokaera hau ez da ETNena bakarrik, askotan Hirugarren Munduko enpresek ere euren mozkinak kanpora bidaltzen dituzte eta (Jenkins, 1991).

Bestalde, ETNak nazioarteko merkataritzan aritzen dira. Jarduera honen azken emaitza ez dago argi. Alde batetik, filialak egindako esportazioak dibisa-iturria izango dira eta, bestetik, egiten dituen inportazioek dibisen irteera eragingo dute.

Garabideko estatuak arazoak eduki ditzake ETNari zergak kobratzeko. Zerga nahiko altuak ezarri nahi badizkio, ETNak mozkin txikiagoak deklaratu ditzake bere filial horretan. Horrela, enpresa matrizeak gehiago kobratuko dizkio bere filialari egindako salmentak edo eskainitako zerbitzuak. Tranpa hau *transfer pricing* sistema bezala ezagutzen da.

4.2. Produktuak

Askotan ETNek garabideko estatuetan produktu desegokiak sartzen omen dituzte. Kasurik txarrena izan daiteke, bizitzeko nekazaritza ordezkatzeko dutenean eta bere lekuan, adibidez, kanpora esportatzeko loreak landatzen direnean.

ETNek askotan lekuan lekuko eliteek nahi dituzten luxuzko produktuak produzitzen dituzte eta ez jende xumeak behar dituen gauzak.

Dena dela, beste askotan ETNen produktuak eta eragina positiboak izan dira. Nekazaritzaren arloan ere, askotan produktibitatearen igoera ekarri dute eta garabideko estatuetakoz biztanleen ongizatea hobetu egin dute.

4.3. Teknologia

Puntu bi daude hemen: lehenengoa ia teknologiaren transferentzia gertatzen den eta zenbateraino; bigarrena, ostera, teknologia horren komenigarritasuna izango litzateke.

ETNak bere filialean teknologiaren transferentzia egiten du eta enplegatzen dituen langileak trebatzen ditu. Hala ere, Hirugarren Munduan kokatzerakoan bere helburua lan-esku merkea ustiatzea bada, orduan ez du oso teknologia aurreratua eramaten. Zentzu honetan, ETNek garabideko estatuetan ez dituzte I+G jarduerak jartzen.

Bestalde, filialean gertatutako eraginaz gain, teknologia ekonomia horretan barreia daiteke demostrazio-eraginaren bitartez. Hau da, gainerako enpresek enpresa horretatik ikas dezakete. Dena dela, ETNak honekin jeloskorak izaten dira eta ez dute askotan nahi euren abantaila den teknologia hori besteen artean zabaltzea. Munduko patenterik gehienak ETNek dauzkate euren eskuetan.

Askotan, garabideko estatueta bereziki, transferitutako teknologiaren egokitasuna auzitan egoten da. Askotan ez da teknologiarik komenigarriena ekonomia horientzat. Izan ere, teknologia kapital intentsua izan daiteke eta enplegu gutxi sorrarazi. Edo teknologia kutsatzaileak izan daitezke, garabideko estatuena legeak puntu honetan bigunagoak direlako. Adibide batzuk: Union Carbide (Bhopal, Indian 1994. urtean), Shell Nigerian, etab.

Dena dela, orokortzea beti da arriskutsua. Kasu askotan eraginak positiboak izan dira eta beste kasu askotan negatiboak.

4.4. Merkataritza eta harremanak

ETN baten filialak zer eragin dauka garabideko estatuaren esportazioetan eta inportazioetan? Erantzuna faktore batzuen arabera izango da. Adibidez, ez da berdin ETNaren helburua garabideko estatuaren merkaturia zerbitzatzea izatea edo nazioarteko merkaturia hornitzera zuzentzea.

Era berean, funtsezkoa da ETN baten filialak garabideko estatuaren ekonomiarekin harreman handia edukitzea, batez ere bere hornitzaileekin. Horrela bada, filialak ez ditu inputak bere enpresa matritzetik inportatuko. Era berean, harremanak edukitzea funtsezkoa da ekonomia horretan teknologiaren transferentzia gertatzeko.

ETNak harreman horiek edukiko ditu edo enklabea izango da? Erantzuna berriz ere zenbait faktoreren arabera izango da. Garrantzitsua izango da ekonomia horretan kalitatezko hornitzaileak egotea. Hori askotan garabideko estatueta zaila izaten da. Horri aurre egiteko, garabideko estatuak askotan bertako-osagaiak (*local content*) exijitzeko politikak aplikatzen dituzte.

4.5. Industri egitura eta enpresak

ETNak garabideko estatueta enpresak baino botereetsuagoak izaten direnez, askotan hauek kaltetzen dituzte, ezin baitiote kanpokoari aurre egin. Ildo beretik, ETNek sektore askotan kontzentrazio-maila handitzen laguntzen dute: adibidez, bost ETNren artean zerealen merkaturia kontrolatzen dute, etab.

Dena dela, beste kasu askotan ETNen parte-hartzea positiboa izan daiteke bertako enpresentzat. ETNak harremanak sor ditzake garabideko estatueta enprekin, etab.

4.6. Enplegua eta langileria

ETNek munduko produkzioaren ehuneko handia ordezkaten dute. Hala ere, enpleguaren ehuneko txikia, %3. Beraz, ETNak puntako sektoreetan edo produktiboenetan aurkitzen dira.

ETNek Hirugarren Munduan 12 milioi langile zuzenean enplegatzen dituzte euren filialetan. Honi gehitu beharko genizkioke zeharka eragindako lanpostuak.

Hala ere, puntu negatiboak ere badaude. Batetik, ETNek garabideko estatueta enpresak kaltetzen badituzte, hauetan enplegu-galerak eragiten dituzte.

Bestetik, enplegu motak askotan ez dira onak. ETNek ez dituzte I+G jarduerak garabideko estatuetan kokatzen eta askotan lan-esku merkearen ustiapena bilatzen dute, soldata merkeak ordainduz, horretarako emakumeak kontratatuz, etab.

Dena dela, praktika hauek gehienetan ez ditugu ETNen filialetan aurkitzen. Hauetan pagatzen diren soldatak inguruko enpresetan ordaindutakoak bezain-besteakoak edo altuagoak izaten dira. ETNek jokaera maltzur horiek subkontratazioaren bitartez eramaten dituzte aurrera.

5. Transnazionalen kontrola

Ikusi dugunez, ETNen jarduerak askotan eragin positiboak ekartzen baditu ere, beste askotan eraginak negatiboak dira. Beraz, arlo hau kontrolatu behar litzateke. Momentuz ez dago mundu-mailako aginterik ETNak kontrolatzeko eta hauek lekuan lekuko estatuaren arauari aurre egiten diete.

Egoera honen aurrean, garabideko estatuak ETNekin negoziatzeko ahalmena sendotzeko, neurri supra-estatal desberdinak aplika daitezke: a) estatuak akzio koordinatuak; b) garabideko estatuak laguntza tekniko eskaintzea; d) Kodeak eta gidak; eta e) nazioarteko gobernu berria (Dunning, 1993: 575).

Lehenengoari dagokionez, zaila da garabideko estatuak ekintza koordinatuetara ailegatzea. Izan ere, interesak desberdinak izaten dira, dibisen premia larria dute, etab.

Bigarren aukerari dagokionez, garabideko estatuak laguntza tekniko eskaintzeaz instituzio desberdinak arduratu dira (UNCTC, Munduko Bankua, FAO), adibidez, garabideko estatuak konturatzeko ETNek *transfer-pricing* noiz erabiltzen duten. Hala ere, aipatutako instituzioak askotan ETNekin harreman estuegia edukitzeagatik salatu izan dira.

Hirugarrenik, kodeak eta gidak ETNen jarduerak desberdinak arautzen saiatzen dira: zergak, teknologiaren transferentzia, lan-eskuaren bizi-baldintzak, etab. Kode desberdinak daude, adibidez, nekazaritzan edo elikagaien industrian *Codex Alimentarius* dago, FAOk eta OMEk batera sortutakoa. Hala ere, kode honetan industrializatutako estatuak garrantzia gehiegizkoa da eta garabideko estatuak eta gobernuak kanpoko erakundeek zeresan gutxi daukate.

Garabideko estatuak salaketan ondorioz, 1970eko hamarkadan Nazio Batuen baitan UNCTC (United Nations Centre on Transnational Corporations) sortu zen. Honek 1990eko hamarkadaren hasieran ETNen gaineko kodea ezarri nahi izan zuen, punturik garrantzitsuenetan legearen estatusa eduki behar zuena. Hala ere, ETNek ez zitzaizkien gehiegi gustatu eta UNCTC disolbatu egin zen, aurrerantzean UNCTADen barruan murgilduz.

Laugarren aukera nazioarteko gobernuak ezartzea da. Izan ere, kodeek ez dute legearen estatusa edukitzen. Hala ere, azken urteetan Lehen Munduko gobernuak eta ETNek legea atera nahi izan dute ez ETNen kontrolerako, baizik eta gobernuen kontrolerako. Horrela ezinezkoa izateko gobernuak ETNen jarduerak arautzea.

Saiaketa honen izena Inbertsioetako Aldeanitzeko Akordioa (IAA) (Multilateral Agreement on Investment, MAI) da (Zurbano, 1998: 151). Ahalegin hau 1988. urtean hasi bazen ere, negoziaketa formalak ez ziren 1995era arte hasi OECDko kanpo ministeritzen artean, Europako Batzordearekin eta MMEREkin, azken hau lekuko gisara.

Negoziaketak isilpean garatu ziren eta Hirugarren Munduko gobernuen parte-hartzerik gabe. Zorionez, 1997. urtean Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuek agiria lortu eta filtratu egin zuten. Egondako erantzunaren aurrean, momentuz IAA delakoa bertan behera geratu da (Dubois, 2001). Dena dela, azken urteetan mundu osoko gobernuak Atzerriko Inbertsio Zuzenen aurrean gero eta kontrol gutxiago ezartzen ari dira.

Bibliografia

- Bidaurrazaga, E. (1999): "Globalizazioaren inguruko zenbait gogoeta", *Uztaro* **28**, 3-35.
- Dicken, P. (1998): *Global Shift. Transforming the world economy*, Paul Chapman Publishing, London.
- Dubois, A. (2001): *Garapenaren finantzazioa. Fluxu pribatuak eta garapenerako laguntza ofiziala*, Ondo prestatu egoteko eskuliburuak 3. zkia, Hegoa, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Dunning, J.H. (1993): *Multinational enterprises and the global economy*, Addison-Wesley Publishing Company.
- Jenkins, R. (1991): *Transnational corporations and uneven development. The internationalization of capital and the Third World*, Routledge, London and New York.
- Lall, S.; Streeten, P. (1977): *Foreign investment, transnationals and developing countries*, Macmillan, London.
- Sutcliffe, B.; Glyn, A. (1999): "Los indicadores de mundialización y sus interpretaciones erróneas", *Mientras Tanto*, 1999ko urria.
- UNCTAD (2001): *World Investment Report 2001*, UNCTAD, New York and Geneva.
- Zurbano, M. (1998): *Munduko ekonomia. Botereak, disparekotasunak eta egonkortasun-eza kapitalismo globalean*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.